



## KALITATE, INGURUMEN ETA LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKA INTEGRATUA

GMSM MEDIOAMBIENTE, S.A. erakundeko zuzendaritzak, zerbitzuaren prestazioa eta alderdi interesdunen gogobetetzea bermatzeko eta gure langileek osasunean izan ditzaketen kalteak eta narriadurak saihesteko, ingurumenak duen garrantzia aintzakotzat hartuta eta gure jarduerak bertan izan dezaketen eragina kontuan hartuta, Kalitate, Ingurumen eta Prebentzioko politika zehaztu du ondorengo konpromisoetan oinarrituta:

- Gure alderdi interesdunen nahiak gogobetetzeko zerbitzua eskaintzea, Segurtasun eta Osasun alderdiak arriskuan jarri gabe arrazoi ekonomiko edo produktiboengatik.
- Zerbitzu guztiak bezeroekin sinatutako adostasunen arabera egitea. Horrez gain, legezko-betekizunen arabera, ingurumeneko eta laneko arriskuen prebentzioko betebeharren arabera eta enpresak onartutako beste edozein konpromisoren arabera ere aritzea.
- Kudeaketa Integratuko Sistemaren etengabeko hobekuntza bilatzea alderdi interesdunen gogobetetzea eta gure langileen lan baldintzak mantentzeko edota hobetzeko, merkatuan erreferentzia izateko ahaleginarekin.
- Desagerraraz daitezkeen arriskuak ezabatzea eta, bestela, arrisku horien eraginpean dauden pertsonentzako arriskuak murriztea, lanarekin lotutako lesioak eta osasun narriadura prebenitzeko lan baldintza seguruak eta osasungarriak eskainita.
- Ingurumena babestea, kutsadura saihestea eta gure jardueraren eraginez ingurumenean eta langileen osasun eta segurtasunean eragin okerra izan dezaketen aldagaien prebentzioa. Horretarako jardueren planifikazio, programazio eta ebaluazio zehatza egingo da.
- Gure hornitzaile eta azpikontratekin elkarlanean aritzea gure zerbitzuek prebentzioan, kalitatean eta ingurumenean adostutako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.
- Langile guztiak motibatzea, prestatzea eta inplikatzeko GMSM MEDIO AMBIENTE, S.A. erakundeko Kudeaketa Integratuko Sistemaren kudeaketan eta hobekuntzetan. Horretarako politikaren, plangintzaren eta ezarritako helburuen berri emango da eta behar diren sentsibilizazio eta formazio ekintzak egingo dira. Era berean, langileei eta haien ordezkariari kontsultak eginda eta guztien parte hartzea bultzatuta.
- Politika zabaltzea GMSM MEDIOAMBIENTE, S.A. erakundeari zerbitzua eskaintzen dioten erakundeen artean eta alderdi interesdunen esku uztea.

Zehaztutako helburuak lortzeko Kalitate, Ingurumen eta Prebentzioko Politika Integratu egokia ezartzearen ardura Zuzendaritzari dagokio, baina enpresako langile guztien esfortzu eta profesionaltasunari esker gauzatuko da.

Bilbo, 2022ko abendua



Aitor Ulibarri Urretxu

**GMSM Medioambiente, S.A. ko zuzendari nagusia**